

EUROESKUALDEKO NAZIOARTEKO BIKAINTRASUN CAMPUSA

Orain dela urtebete, 2014ko azaroan, [Bordeleko Unibertsitate](#)ko eta [UPV/EHU](#)ko errektoreek esparru hitzarmen bat sinatu zuten, **Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa** sortzeko. Gerora, hitzarmenarekin bat egin zuten bi unibertsitateetako bikaintasun campusetako kideek ere (DIPC eta Tecnalia, UPV/EHUri dagokiola; eta Bordeleko Unibertsitatearen partetik, CNRS, INSERM, Université de Bordeaux Montaigne, Bordeaux INP, Bordeaux Sciences Agro eta Bordeaux Sciences Po). Akordioa lau urteko prozesu luze baten emaitza izan zen.




Esparru hitzarmen horretan ezarritako helburuek bide eman zuten **Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa** garatzeko. Hona hemen helburuok:

- Ikasleentzako eskaintza akademikoa zabaltzea, unibertsitate bien arteko mugikortasuna bultzatuz eta nazioartean erakargarria den eskaintza bateratu handiagoa eginez.
- Europan erreferente izango den ikerketa eremu bat eratzea, sinergia handiagoak bultzatuz ikerketarako eta garapenerako egitura eta dinamiketan.
- Sare sozioekonomikorako balioa sor dadin sustatzea Akitanian, Euskadin eta Euroeskualde osoan, berrikuntzarako eta jakintzaren transferentziarako estrategiak partekatuz, eta beren baitako entitateen arteko lotura sendotuz.
- Unibertsitate bakoitzaren nazioarteko hedakuntza handitzea, beste unibertsitatearen nazioarteko sareen bidez eta biek elkarrekin parte hartuz nazioarteko proiektuetan.
- Elkarrekin lan egitea Euroeskualdeko Campusaren eta Akitania-Euskadi Euroeskualdearen ikusgaitasuna eta nazioarteko kokapena sustatzeko.

- Bi eskualdeen arteko harreman kultural eta linguistikoa indartzea.

Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa eratzen aurrera egiteko, helburuok etorkizuneko ekintza plan batean jaso ziren. Plan horrek lau alor jorratzen ditu: hezkuntza eta enplegarritasuna; ikerketarako lankidetzak; Akitania-Euskadi Euroeskualdearekiko lotura, berrikuntzarako eta lehiakortasunerako; eta nazioarteko hedakuntza. Aurrerago, zeharkako bosgarren esparrua ere planteatu zen, koordinazioa eta egituratzea gauzatzeko, aurreko esparruen euskarri gisa.

Azken batean, **Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa** unibertsitate bietako kideek eta haien bazkide estrategikoek egindako jarduera partekatu jakin batzuen bidez egituratzen da: titulazio bikoitzak, elkarlaneko zuzendaritzak, Europako proiektuak, ikerketa egitura elkartuak, ekintzailatza programak, lan praktikak, etab.



Euroeskualdeko Campusa UPV/EHUren eta Bordeleko Unibertsitatearen apustu estrategiko bat da, arlo guztietan eragin kualitatibo zein kuantitatibo handia duena. Izan ere, gisa honetako proiektu batek hedadura handia du, jomugan dituen kideen kopuruari erreparatzen badiogu:

- 110.000 ikasle baino gehiago.
- 9.000 ikertzaile baino gehiago.
- Administrazio eta zerbitzuetako 5.000 langile inguru.

2011 eta 2015 artean, besteak beste, hauek lortu dira:

- Graduondoko 6 titulazio bikoitz, unibertsitate bien artean.
- 22 tesi zuzendu dira elkarlanean (2010a baino lehenagoko batez bestekoa halako zortzi). Ikasturte honetan, beste 10 abiatuko dira.
- Nazioarteko proiektuen 14 proposamen aurkeztu dira H2020, Erasmus+ eta EIT programetarako, eta horietatik 3 onartu dira. Bestalde, KIC Raw MatTERs partzuergoan ere parte hartu da.

- Ikertzaileen komunitate bat osatu da; elkarlaneko tutoretza edo zuzendaritzapean dauden doktorego aurreko ikertzaileek eta haien zuzendariek osatzen dute. Elkarlaneko tutoretza edo zuzendaritzapean dauden ikertzaile horientzat, UPV/EHUK eta Bordeleko Unibertsitateak aitortutako prestakuntza ibilbidea abiatu da.
- Euroeskualdeko Campusa ezinbesteko elementu bihurtu da 2014-2020 Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa garatzeko. Plan estrategiko horren barruan, pasa den urrian, lankidetza hitzarmen bat sinatu dute Euskampus Fundazioak eta Euroeskualdeak, Euroeskualdeko Campusa osatzeko. Horretarako, Euroeskualdeak finantzazioa emateko konpromisoa hartu du.
- Euroeskualdeko Campusa garatzeko, Euskampusen eta IdEx Bordeaux-ek abian jarri dute Tresna Euskarri bat: Euskampus Bordeaux International Support – EBIS. Horren bidez, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak komunitatearen zerbitzura jartzen dira, lankidetzak sustatzeko eta kudeatzeko.
- Euroeskualdeko Campusaren nortasun digitala zehaztu eta abiarazi da (<http://www.ehubaq.eu>).
- Lehendabiziko Euskampus-Bordeaux Euroeskualdeko Sinposioa egin zen 2014an: 300 pertsona baino gehiago bildu dira, 14 zientzia saiotan eta 6 administrazio saiotan.

Esan bezala, **Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa** ezinbesteko elementu bihurtu da 2014-2020 Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa garatzeko, bereziki 2. erronkari dagokionez: enpresako berrikuntzaren, lehiakortasunaren eta ezagutzaren ekonomia. Alde horretatik, Euroeskualdeko Campusa prestakuntzarako, ikerkuntzarako eta ezagutzaren transferentziarako lankidetza gune bateratu bat da: Akitania-Euskadi ezagutzan oinarrituriko Euroeskualde bilakatzen eta nazioartean hedatzen laguntzen du.

Laburbilduz, **Euroeskualdeko Campusak** unibertsitate biei bikaintasun eta nazioartekotze estrategiak ezartzen laguntzen die, baina, horrez, gain, egitasmo gakoa da xede hauetarako:

- Euskadiren eta Akitaniaren **espezializazio adimentsurako estrategiak** sendotzea.

- Tresna erabakigarria izatea Akitania-Euskadi Euroeskualdearen estrategiaren **erronkei aurre egiteko**.
- **Lankidetzaren** adibide nabarmena izatea Europako Unibertsitate Eremuan eta Europako Ikerketa Eremuan, eta Europako Ardatz Atlantikoa irmotzea Europa 2020 estrategiaren barruan.



2015eko SINPOSIOA

- 2015. urtean egindako lana sendotuko da, eta aurrerapen kuantitatiboa eta, batez ere, kualitatiboa ekarriko du bi erakundeen arteko lankidetzan eta loturan.
- II. Sinposioak 350 pertsonatik gora bilduko ditu Donostian, 2015eko azaroaren 26an eta 27an.
- Denera **14 zientzia saio** egingo dira, hainbat gairen ingurukoak: osasuna, fabrikazio aurreratua, materialak, ekosistemak eta gizarte berrikuntza, besteak beste. Saio horiekin, ikertaldearen arteko harremanak eta lankidetzak sendotu eta indartu nahi dira, eta aurrera egin nahi da nazioarteko proiektuetan, elkarlanean zuzendutako tesien proiektuetan eta graduondoko titulazio bikoitzen egitasmoetan. Sinposioan, **bi Lankidetzak Memorandum sinatuko dira**, bi unibertsitateen artean **Mugaz haraindiko bi Lankidetzak Laborategi** abiatzeko fabrikazio aurreratuaren eta nanomaterialen arloan (azken arlo horretakoa DIPCrekin batera jarriko da martxan). Mugaz haraindiko Lankidetzak Laborategi horiek elkarlan handiagoa ahalbidetuko dute, epe luzeko lankidetzarako programa finko bat ezarriko baita.
- Gainera, **administrazio eta zerbitzuei buruzko 6 saio egingo dira**, unibertsitate bietako kudeaketa egiturak hurreratzeko eta, hala, jardunbide egokiak trukatzeko, unibertsitate bietako administrazio prozedurak errazago ulertzeko, deialdien agendak eta mekanismo lagungarriak ikertzaileen arabera moldatzeko, irakaskuntza berrikuntzako esperientziak partekatzeko eta, oro har, kulturartekotasuna sustatzeko.
- Azkenik, **ezagutzaren balorizazioari eta transferentziari buruzko saio berezi bat** egingo da, Tecnia Venturesen koordinatua, eta, bi unibertsitateetako kideek ez ezik, enpresak eta inbertsiogileek ere parte hartuko dute besteak beste. Saioan, **Negozio aukeren lehiaketa** egingo da: oinarri teknologikoa Euskal Herrian eta Akitanian duten enpresa egitasmo berriek beren negozio aukerak eta enpresa planak aurkeztuko dizkiote bi eskualdeetako inbertsiogileen eta adituen panel bati.

- Bestalde, erakunde bietako tutoretza edo zuzendaritza jasotzen duten doktoregaiantzat, zeharkako gaitasunen bigarren *workshopa* egingo da, balorizazioari buruzkoa, unibertsitate bietako master eta doktorego eskolen bermearekin.
- Horrez guztiaz gain, alde biko topaketak antolatu dira 'P2P meeting' direlakoetarako: formatu txikiko bilerak dira, eta ez dute zientzia esparru zehatzik lantzen, gai jakin batzuetarako etorkizuneko lankidetzak planteatzen edo sustatzen dituzte; adibidez, masterreko titulazio bikoitzerako.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

UPV/EHUK, 35 urte hauetan, lidergoa lortu du Euskal Herriko ikerketan eta hezkuntzan. Ikasleei prestakuntza osoa eskaintzen die, aurrerabide zientifiko eta teknologikoa bultzatzen du, eta, gainera, agerian jarri du erakunde solidarioa eta konprometitua dela eta gizartearekin erantzukizuna duela.

UPV/EHUK hiru campus ditu, gaur egungo EAEko lurralde historiko bakoitzeko bat: Bizkaikoa, Gipuzkoakoa eta Arabakoa. Horrela, UPV/EHUK ekarpen handia egiten dio Euskal Herriko errealitateari.

Gutxi gorabehera 55.000 pertsonak osatzen dute (% 86, gradu eta graduondoko ikasleak; % 10, irakasle eta ikertzaileak; % 4, administrazio eta zerbitzu eta langileak), eta urtero ia 400 milioi euroko aurrekontua izaten du.

UPV/EHUK, EAEko unibertsitate publiko bakarrak, gradu 70 titulazio, 104 master ofizial eta 65 doktorego programa eskaintzen ditu jakintzaren arlo guztietan, gizarteak unibertsitate mailako prestakuntza dauzkan premiak betetzeko. Eratu zenez geroztik, 300.000 titulatu baino gehiago sortu ditu jakintzaren askotariko arloetan. Dударik gabe, Euskal Herriko giza kapitala prestatzeko eragile nagusia da.

Ikerketaren arloan, UPV/EHUK % 64 areagotu du zientzia ekoizpena 2009. urtearen aldean, eta, gaur egun, Euskadin gauzatzen den ikerketaren % 60 baino gehiago egiten da bertan. Horrenbestez, Euskal Herriko zientzia ekoizpenaren eragile nagusia da.

Nazioartean, bere bikaintasuna finkatu du. 2012an, Shanghaiko sailkapen entzutetsuan sartu zen. 2014an, 401. eta 500. postuen artean agertu zen zerrenda horretan, *ex aequo*, eta, hala, estatuko hamabi unibertsitate onenen artean sartu zen. 2015ean ere maila horri eutsi dio.

Bestalde, UPV/EHUK asko lagundu du inguruko lurraldea sozialki eta ekonomikoki eraberritzen. Eraginaren inpaktuari buruzko azterlanaren arabera (IVIE, 2012), UPV/EHUK ia 2.000 milioi euroko output gehigarria eragiten du (2007koa baino % 20 handiagoa), 882 milioi euroko irabaziak ekartzen ditu (2007an baino % 17,2 gehiago), eta ia 20.000 enplegu ematen ditu (2007an baino % 18,7 gehiago). Hortaz, Euskal Herriko BPGaren % 1,31 eta enplegatuen % 1,89 hartzen du. Euskal Herriko ekonomiak azken bi hamarkadetan izandako hazkuntzaren bostena baino gehiago, zuzenean nahiz zeharka, UPV/EHUn ekarpenei esker lortu da.

Bordeleko Unibertsitatea

Bordeleko Unibertsitatea 2014ko urtarrilaren 1ean sortu zen ofizialki, hiru unibertsitate hauek bat egin ondoren:

- Bordeaux 1 Zientzia eta Teknologia Unibertsitatea,
- Bordeaux Segalen 2 Unibertsitatea eta
- Université Montesquieu Bordeaux IV unibertsitatea.

Frantziako hirugarren unibertsitatea da, eta 52.000 ikasle (% 12 nazioartekoak) eta 5.600 langile inguru (3.000 irakasle eta ikertzaile, eta 2.600 teknikari eta administrazio eta zerbitzuetaiko langile) hartzen ditu.

560 milioi euroko aurrekontua du urteko.

Ikerkuntza da Unibertsitatearen indarguneetako bat. 2011ko uztailean aitorpena eman zioten zientzia esparru guztietan (Zientzia eta Teknologia, Bizitza eta Osasuna, Soziala eta Humanoa) dituen gaitasunen bikaintasunari, eta "Bikaintasun Egitasmoa - IdEx Bordeaux" saria jaso zuen. Sari horrekin, 700 milioi euro eman zizkieten ikerkuntza areagotzeko eta garatzeko.

IdEx Bordeaux Bordeleko Unibertsitatearen menpe dago, eta honako erakunde hauek ditu:

- Université Bordeaux Montaigne unibertsitatea
- Eskola hauek: Institute Polytechnique Bordeaux, Sciences Po Bordeaux eta Bordeaux Science Agro
- CNRS
- INSERM

Shanghaiko sailkapenean 223. lekuan dago (Frantziako hamar unibertsitate onenen artean).

Bordeleko Unibertsitateak Europako campus handienetako bat du (260 hektarea). Hiritik gertu dauden zenbait instalazio ditu, zerbitzu eta aisetasun ugariak.